

Valdocco

 **salesianos**
SANTIAGO EL MAYOR

DICIEMBRE 2023
Nº 19

HOJA DE FORMACIÓN PERMANENTE
PARA EDUCADORES DE ESCUELAS SALESIANAS

9 urterekin izandako ametsa. Hezteko modua



Sarrera

Ikasturte honetako kanpaina pastoralarekin bat, *Valdocco orri* honetan hiru gogoeta eskainiko dizkizuegu “*Amets bat zuretzat*” goiburuarren eta Joan Bosco mutikoak bederatzi urterekin izandako ametsaren argitan. Kanpaina pastorean hiruhileko bakoitzerako hartutako hiru elementuen ingurukoak izango dira gogoetok. Don Boscoren esperientzia kontuan hartuta, gure hezkuntza-lanari aplikatzen saiatuko gara.

Lehenik eta behin, gogora dezagun Don Boscoren eginkizunerako ametsak garrantzitsuak izan zirela. Hasieran, ez zien jaramonik egiten, baina denboraz, zehatz betetzen zirela ohartu zenean, jarraitu beharreko bidea edo abiarazi beharreko ekimenak erakusten zizkieten. Don Boscok 159 amets izan zituen. 9 urte zituela izandako ametsak bere bizitzako bideak markatu zizkion. 1846an aholkatuko zion Don Cafassok ametsok sinestea. Amets egitea ohiko ekintza bada eta oharkabean pasa badaiteke, baliteke ere esperientzia oniriko horietako batzuek pertsona markatzea eta, agian, orain egun batzuk irakurri dudanez, “ametsak bizimoduak transformatzen dituzten inspirazio-leiho bihurtzea”.

Don Boscok *Oratorioko Oroitzapenetan* (*Memorias del Oratorio*) kontatzen digu amets hau. Urte asko igaro ziren ametsa izan zuenetik idatzi zuen arte. Arrosaz eta arantzaz beteriko bidean bizi izandakoaren berrirakurketa izan daiteke. Bere ametsa, bere bokazioa, nola egia bihurtu zen nabaritzen den narrazioa. Amets horretan, arretaz aztertuz gero, Bibliako bokazioetan agertzen diren elementu berberak aurkituko ditugu: egoera zehatza, teofania, misio/eginkizunaren aurkezpena, giza erreakzioa, norbere buruari egiten zaion promesa, mezuarren zabaltzea eta norbere buruari egindako promesa zeinu batez berrestea (“*Orduan berriaz begiratu nuen eta, piztia basatien ordezt, arkumetxo otzanak ikusi nituen, Gizonaren eta Andrearen inguruan saltoka eta beeka jolasean*”). Amets hau ikuspuntu horretatik irakurtzera animatzen zaituztet; harritu egingo gaitu ametsa boka-

zio biblikoen era berberean idatzia dagoela ikusteak. Honek agerian uzten du kristau-bokazioaren eta gure goiburuaren zentzu sakona. *Amets bat zuretzat* goiburuak ageriko egin nahi du Jainkoak gutako bakoitzarentzat amets bat duela. Izan zuen Joan Boscorentzat, eta badu gutako bakoitzarentzat eta gure ikasleentzat. Zailtasuna dei horrez jabetzean eta erantzun egokia ematean datza.

Hezteko modua

«Neure izenez deitu eta mutilen buru jartzeko agindu zidan, hitz hauek erantsiz: **“Kolpeka ez, onean eta karitatez egin beharko dituzu adiskide. Has zaitezoraintxebertan, bada, berauei bekatuaren itsuskeriaz eta bertutearen edertasunaz irakasten”**.

Oratorioko Oroitzapenetako hitz hauek Jesusek, Jaunak, Joan mutikoari erakutsi zizkion **hezteko modua** (pedagogia) eta **kristau-bizitza bizitzeko modua** (espiritualtasuna) aurkezten dizkigute. Jainkoak eman zion eginkizuna eta berau burutzeko modua, estiloa, dira. Argi eta garbi hitz egiten digu karitatean eta otzantasunean, adeitasunean eta hurkotasunean oinarrituta dagoen moduz, kolpeak, hitz txarrak, besteak, gaztea, mindu ditzakeen guztia saihesten dituenaz.

Errepresio-sistema nagusi zen testuinguruan, Don Boscok prebentzio-sistema proposatu zuen, eta 1877ko testuan honako hau idatzi zuen: “institutu baten aginduak eta araudiak ezagutaraztea eta, ondoren, kargu hartzea da, ikasleek beti zuzendariaren edo laguntzaileen begi zolia gainean senti dezaten, hauek **aita maitekor** gisa hitz egingo dietela, kasu bakoitzean gidari izango direla,

aholkuak eman eta okerrak adeitasunez zuzenduko dizkietela; hau da, ikasleak huts egiteko ezintasunean jarriko dituzte”.

Testu beretik, zigorrei dagokienez, ezagunak dira honako hauek:

“Ahal dela, ez erabili inoiz zigorrik”.

“Hezitzailea, bere ikasleen artean, saia dadila maita dezaten, bere beldur izatea bahi badu”. Erromako Gutunean (1884) erabilitako esamoldearen antzekoa da: “Gazteak ez daitezela maitatuak izan bakarrik, maitatuak direla ohar daitezela baizik”.

“Oso kasu berezietan izan ezik, zentzarazpenak eta zigorrak ez daitezela inoiz jendaurrean gertatu”.

Don Boscok 1885ean Gioacomo Costamagnari idatzitako gutun baten azken aipamen bat gehituko dut: “Prebentzio-sistema izan dadila gure ezaugarria. Inoiz ez zigor penalik, inoiz ez hitz iraingarririk, inoiz ez errieta zorrotzik besteen aurrean. Aitzitik, klaseetan goxotasun, karitate eta pazientzia hit-

zak entzun daitezela. Inoiz ez hitz mingarririk, inoiz ez kolpe arinik ez larririk. Erabil bitez zigor negatiboak, beti ere, horiek jasotzen dituztenak lehen baino gure adiskide handiagoak bihur daitezzen eran, ez gugandik gaiztotuta urrundu daitezzen moduan.

Esaldi horiek guztiek agerian uzten eta nabarmentzen dute Don Boscok bederatzi urte zituenean izandako ametsean kontatzen diguna. *Oratorioko Oroitzapenetatik* urte gutxira idatzitako testuetan ikus daitekeenez, bere mezua berbera da eta ametsean agertzen den hezkuntza-ideia idazki pertsonaletan gogoratuko du, salestar konkretu batzuentzat eta salestar eskoletako salestar eta hezitzaile guztientzat, hala nola Prebentzio Sistemari buruzko testuan edo Erromako Gutunean.

Prebentzio Sistemaren eta salestar espiritualtasunaren ezaugarria

Zalantzarik gabe, Don Bosco konbentzituta dago hezteko modu horren garrantziaz eta beharraz,



gazteak erakartzeko eta berauei pertsona gisa heltzen eta hazten laguntzeko, “kristau on eta herri-tar zintzo” izan daitezten.

Gure salestar etxeetan jarraitu behar dugun hezkuntza-bidea erakusten digu, baina gaur egun, atzo bezala, gure ikasleekin “indarkeria” edo “tratu txarra” erabiltzen dugun egoerak daude oraindik ere; zigorrak ez ditugu modu hezigarrian erabiltzen, ikasleak gelatik kanpora botatzen ditugu... Ziur asko, hau gero eta gutxiago gertatzen da, baina, arau orotan bezala, defendatzen duen balioari erreparatu behar diogu, ez arauari berari. Benetako balioa gure ikasleekin dugun tratuan datza, eta mutil edo neska bakoitza gureganatzeko dugun benetako arduran, beronen bihotza eta jarrerak transformatzeko eta “otsoa arkume bihurtzeko”, hau da, hazi eta aldatu dadin.

Heziketa positiboaz eta errespetuzkoaz mintzo zaizkigun jarrera horiek, ondotxo dakigunez, Presentzio Sistemaren zutabe batean, maitasunaren edo *amorevolezzaren* zutabearen, agertzen dira. *Salestar Eskolen Hezkuntza Proposamenak* gai honi buruz agertzen duen ideia bat gogoratuz, nabarmendu dezakegu zein garrantzitsuak diren ume, nerabe edo gazte bakoitza den horretan/den bezalako onartzea, beronengan eta beronen aukeretan konfiantza izatea eta hori hitzez eta egitez erakustea, **neska-mutilokin modu konstruktibo eta aberatsean erlazionatzea**, adeitsu izatea, beti horien ongia bilatzea eta gazteok maitasun helduz maitatzea.

Adeitasuna erreuperatu

Frantzisko aita santuak, 2020an argitaratutako *Fratelli tutti* entziklika-gutunean, hiru zenbakitan



(222-224) adeitasunak pertsonen bizitzan duen garrantziaz hitz eginen digu. Guri, hezitzaileoi, gure bizitza pertsonalerako ez ezik, ondorengo hitzak baliagarriak izan dakizkiguke gauden tokian mundu senide artekoagoa egiteko.

Lehenik eta behin, aitortzen du “indibidualismo kontsumistak gehiegikeria handia eragiten” duela. Agresibitatea areagotu egiten da, baina posible da “adeitasuna lantzea” aukeratzea. Gaur egun, guk ere, salestar hezitzaileok, **adeitasuna aukeratu** dezakegu. Don Boscok esaten zuen ere “hitz egitean, jardutean, ohartaraztean, gozotasunak dena eta guztiak lortzen dituela”. Zer aholku bikai-

na gure ikasleekiko lanerako! Zer lezio bikaina gure bizitzarako! Zein zaila den egia bihurtzea, baina zenbat irabaziko genukeen horrekin! “Kolpeka ez” ez dagokie kolpe fisikoei bakarrik; izan litezke beste “kolpe” batzuk ere: hitzak, keinuak edo pertsonak, neska-mutilak, tratatzeko modu guztiz desegokiak. Funtsezkoa da gure lanean fin jokatzeko gai hauekiko gero eta sentikorra goa den gizartean. Baina baita hezkuntza-estilo zorrotza bizimodu egiten saiatu behar dugun hezitzaileak garelako ere.

223. zenbakian, grezierako *jres-tótes* (Ga 5, 22) hitzaz adierazitako Espiritu Santuaren fruitu bati erreferentzia eginez, gogora-

razten digu Aita Santuak «beste batzuk tratatzeko modua dela, hainbat modutan erakusten dena: adeitasuna tratuan, hitzez edo ekintzez inor ez mintzeko ardura, besteen zama arintzeko ahalegina. Horrek esan nahi du “adore-hitzak, lasaitu, kemendu, kontsolatu eta bizkortu egiten duten hitzak, esatea”, “umiliatu, tristatu, haserretu eta mespretxatzen duten hitzak” esan beharrean.

Izango bagina Frantzisko aita santuak agiri horren 224. zenbakian aipatzen dituen “mirarizko pertsonak”!: “Gaur egun ez da denborarik ez energiarik besteak ondo tratatzeko, “mesedez”, “barkatu”, “eskerrik asko” esateko. Baina noizean behin **persona adeitsuaren miraria** agertzen da; bere antsietateak eta larrialdiak alde batera uzten ditu jaramon egiteko, irribarre bat oparitzeko, hitz bizigarri bat esateko, hainbesteko axolagabeke-riaren erdian entzuteko espazio bat ahalbidetzeko. Ahalegin hori, egunero bizi dena, ulertezintasunak gainditzen dituen eta gatazkei aurea hartzen dien bizikidetzaren sana sortzeko gai da».

Tratu onaren eta zaintzaren kultura

Don Bosco errepresio-sistemaz bestelakoa proposatzeko gai izan zen, non zaintza eta tratua ona, azken batean, maitasuna, beste guztiaren gaineratik zegoen. Gaur egun, behin eta berriz gogorarazten zaigu bi hezkuntza-giltzarri horiek ikasleekiko harremanean duten garrantzia.



Zaintzaren kulturak, eskola-giroan, honako hauek eskatzen ditu: edozein abusu-mota saihestu, ikasleak tratatzeko moduan ambiguetaterik ez izan, adingabe bakoitzaren eta pertsona bakoitzaren ongia bilatu, min- eta sufrimenduegoerak eragotzi, ikasleekin erlazioatzeko moduak zaindu, sare sozialak arduraz erabili... Azken finean, tratuan bikainak/finak izan.

Hori dela eta, **tratu onaren kultura** indartu eta egia bihurtu behar dugu gure zentroetan. Kultura horrek, beste noizbait adierazi dugun bezala, honakoak egin behar ditu: errespetuzko tratua sustatu, pertsona bakoitzaren duintasuna aitortu, gure etxe eta eskoletan da-

goen pertsona bakoitzaren babesa ziurtatu, harreman on eta egokiak, integratzaileak eta konstruktiboak, eragin, hizkera zaindu, portaerak kontrolatu... Azken batean, gure burua zaindu eta ondo egon, gure ikasleak heldutasunez eta arduraz zaindu eta hezi ahal izateko.

Sakonu nahi baduzu, hauek irakurri edo berrirakurri ditzakezu:

- *Memorias del Oratorio*
- *Carta de Roma*
- *El Sistema preventivo en la educación de la juventud*
- *Los sueños de Don Bosco* (CCS)

Óscar Bartolomé Fernández

